


Aretxa gazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko uztailak 9 • 148. zka.



Dendari txikiak

Herriko bizitza komertziala itzaltzen ete dabil?

98ko Uda

Aurrezkiaren
Fruitu berriak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zure konfidantzari
erantzun zuzena



Denda haundi ala txikietan egiten dituzu erosketak?

Dabid Agirre
(Langilea)

Txikietan erostea nahiago dut, gainera gutxiago gastatzen da bertan, beharrezkoa dena bakarrik erosten da eta.

Egia da ere denda haundietan aukera gehiago da-goela. Ordutegia ere zabalagoa da.



Raquel García
(Etxekoandrea)

Bai haundietan eta bai txikietan ere egiten ditut erosketak.

Haundietan aukera gehiago egoteaz gain, prezio hobeak ere badituzte.



Txaro Gallego
(Ikaslea)

Nik erosketak denda haundietan egiten ditut. Arrasateko Hiper Eroskin konkretuki.

Produktuetan aukera gehiago dago, eta gainera oferta interesgarriak aurki daitezke.



Alvaro Zubillaga
(Jubilatua)

Erosi behar den produktuen arabera dago. Okela, arraina eta frutak adibidez, herriko denda txikietan erosten ditut. Gainontzeko produktuak, berriz, denda haundietan.



e s k u t i t z a



Efemeride baten bizipenak

Gure bihotzetan txalaparta hotsa entzuten da eta bere hotsak gure memoria argitzen du, beren borroka irabazi eta askatasuna lortu ondoren, utzi gaituztenen oroitzapena gogora ekarriz.

Izan ere, zientziak ezin die oraindik gaixotasun guztiei aurre egin, baina beraien oroitzapenak gure mezua indartzen du.

Aurrekoan egin genuen giza katea, gizartearekin hartuta dugun konpromezuaren irudi izan zen: familia, hezitzaile, instituzio..., guztiok batera, arazoa ekiditu eta gizakia hondatzen duten sustantzien kontsumoaz buka dezakegula erakustera eman genuen.

Alkatearen manifestuak aipamen berezia eta eskerrona merezi du. Arazoaren ikuspegi errealista batetik, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako gizarte baten alde lanean jarrai dezagun mezua bidali nahi izan zuen.

Herriko dantzariak eta Bergarako bikoteek eskaini zituzten dantzak, baita txistua eta trikitia ere, gure gaztedi jator, indartsu eta denok nahi dugun gizarte libre eta tolerantaren erakusgarri izan ziren.

Poetaren bertsoak gazteentzat izan ziren, gizarte libre baten aldeko mezua bidaliz.

Ekintzei bukaera emateko Aretxabaletako abesbatzak bere ekitaldi bikainaz, musikak terapia bezala eta gizarte libre eta tolerantia komunikatzeko tresna bezala duen garrantzia gogora ekarri zigun.

Zintzotasunean eta elkartasunean oinarritzen den gure mezua, gu entzuteko aukera izan duten guztiengana helduko zelakoan gaude.

Guretzat egun zoragarria izan zen eta berearekin amets egiten dugun bitartean, bizitzak aurrera jarraitzen du.

JAVIER ZUBILLAGA
AFAPAKO LEHENDAKARIORDEA

Oharra

Aurreko alean kontu zaharretan Felix Urtubi abiadore atxabaltarraren gertakariak irakurri ahal izan genituen. Testu hunkigarri hori **Aitor Antxia Leturiak** idatzitakoa zen, bertan horrela adierazi ez bazen ere.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzalea:** Itxaso Barbero. **Inprimategia:** Eguzkigrif. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

“Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen”

Drogen legez kanpoko salmenta eta erabilera desegokiaren aurkako nazioarteko egunean erantzun positiboa izan zuen Aretxabaletak



Giza katean partehartzaile asko izan zen

AFAPA-k (Arabako Gizakia Helburu-ko Senide eta Lagunen Elkarte Deba Garaiko taldea) drogen legez kanpoko salmetan eta erabilera desegokiaren aurkako nazioarteko eguna antolatu zuen pasaden uztailaren 3an. Egun honetan ekintza ugari antolatu zen, non herriak erantzun bikaina izan zuen.

Giza katea eta trikitilariekin batera egun honi hasiera eman zitzaion. Lehenengotan jendeari animatzea kostatu bazitzaion ere, bukararako parte hartzaile kopurua gehitu zen. Ondoren, Juan Antonio Rodriguezek, Aretxabaletako al-

kateak, manifestuaren irakurketa egin zuen. Herriko hainbat taldek ere izan zuten beraien parte hartzea, Loramendi Dantza Taldeak eta Aretxabaletako Abesbatzak beste batzuen artean. Gazte-txoenentzat gainera, Gaztelu puzkarria egon zen arratsalde osoan zehar.


Giza kateak herrian zehar egin zuen ibilalditxo, baina gainontzeko ekintza guztiak plazan izan ziren.

AFAPAREN eskerrona

Arabako Gizakia Helburu-ko

Senide eta Lagunen Elkarte Deba Garaiko taldeak (AFAPA-k), bailarako udaletxei eskerrak eman nahi dizkie, baita udaletxe bakoitzeko gizarte segurantzako sailei ere. Drogen legez kanpoko salmenta eta erabilera desegokiaren aurkako nazioarteko eguna ospatu ahal izateko, solidarioak izateaz gain dirulaguntzak eskeini zizkien eta.

Era berean, komunikabideei ere, herriari informatzeko eginiko lanagatik, eskerrak eman nahi dizkiela jakinerazi zuen AFAPAK; Deba Garaiko herritar guztiei, eta atxabaltarrei konkretuki ere bai.



ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

IRIARTE

Umeen
denda



Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea

☎ 943 77 00 33/79 42 56



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Oporrak direla eta, badago zer egin ez dakienik



Hesia apurtu dutenak 13-14 urte bitarteko gazteak direla uste du Udalak

Errekako hesi babeslea apurtuta azaldu zen Errekabarren kalean pasa den zapatuan. Hautsitako hormigoizko hesi honen parean, burnizko mailu handi bat ikus zite-

keen Deba ibaira botata. Baliteke mailu hori izatea erabilitako tresna.

Monjen ostean kokatzen dira apurtutako babesteko hesi hauek. Bertan jende askok pasiatzen du,

eta haurrak ere jolasean aritzen dira. Horregatik, edozein istripu ekiditzeko helburuaz, udalak burnizko hesiak jarri zituen. Hurrengo eguneko, hauek ere errekan botata zeuden. Honetaz aparte, errekako beste hormigoizko hesi babesle bat ere apurtuta ikus zitekeen.

Oraindik konkretuki nork egin duen kaleratu ez den arren, 13-14 urte bitarteko herriko gazte talde bat dela uste da.

Kristalak apurtuta Kurtzebarri eskolan

Kurtzebarri eskola ostean ere, bigarren solairuko kristalak apurtuta azaldu ziren pasa den asteburuan. Azkenaldian honelako ekintzak ugaritu egin dira herrian. Badirudi, oporrak direla eta, badagoela zer egin ez dakienik.

280 haur udalekuetan

Pasa den astelehenean udaleku irekiak hasi ziren herrian. 280 neska-mutiko, 30 begirale, zuzendaria, koordinatzailea eta materiale arduraduna dira bertako partaideak. Egia esan, aurpegi berri asko ikusiko dira aurten, bai begirale bai zuzendaritza batzordea osatzen duten gehienak, aurreko urteetan egon ez direlako. Hala ere, hauek ere udaleku bikainak lortzeko gogoz eta irrikiz daude.

Dagoeneko egin berri dituzten ekintzetan ederto asko pasa dute denek. Eta oraindik egiteko asko dago gainera!

Ohikoa den bezala, hilaren 7an, txuriz jantzi, zapi gorria lepoan jarri eta San Fermin eguna ospatu zuten.



Ondo pasatzeko aukera ugari dituzte gazteek udaleku irekietan



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Eibar-Gasteiz autopistaren lanak bi urte barru hasiko dira Aretxabaletan

Beste finantziabiderik lortzen ez bada, errepide berria peajeduna izango da. Kilometro bakoitzeko 10 pezeta, Aretxabaletatik Gasteizera 200 pezeta inguru ordaindu beharko da

Antton Jaime (EA) Gipuzkoako errepide diputatuak baieztatu duenez, Eibar-Gasteiz autopista peajeduna izango da instituzio publikoek beste finantziabiderik ez badute lortzen. Aldundiko ordezkariak aurreratu bezala, Europar Batasunak ez du momentuz dirurik jarri eta Eusko Jaurlaritzak plangintza berezi bat burutu dezakeen arren, oraindik ez du aurrera pausorik eman.

Autopista berria egiteak 100.000 milioi balioko du, honi aurre egiteko gidariek bidesaria ordaindu beharko dute, Aretxabaleta eta Gasteiz artekoak berrehun pezeta inguru balioko dutelarik. Autoestrata berriak 45 km izango ditu eta hauetatik 14 lur azpitik joango dira. Lehenengo makinak 1998 urtea baino lehen hasiko dira lanean Bergara eta Eibar artean, errepidea 2004 urterako amaituta egongo da.

Bi urte barru eraikitze lanak hasiko dira

Atxabalta inguruari dagokionez, errepide azkarra eraikitze lanak bi mila urtean hasiko dira eta epeak bete ezker Arbizelai eta Almen arteko zatia bi urtetan bukatuta egongo da. Proiektuak gure herrian edukiko dituen eraginak ikusi nahi dituenak udaletxean dauka aukera, bertan nahi duen orori proiektua erakutsiko zaio.



Eibar-Gasteiz 2004. urterako amaituta egongo da

Bestalde, gure herriko eremuetatik kanpo Eskoriatza eta Arlaban artean gauzatuko dira lan ikusgarrienak. Hauen artean arazo gehien eragin duen lana Deba Garaia eta Arabako mugaren arteko tunela izan da. Hasierako arazoak gainditu ondoren, bi Aldundien artean erabateko akordioa lortu da, ondorioz tunel honek lau karril izango ditu, bi norabide bakoitzeko. Azpiegitura honen erakuntza ere bi mila urtean hasiko da.

Trafikoa arindu

Arabako tarteak, Eskoriatza mugan hasi eta Etxebarri-Ibiñan amaituko da. 13,5 kilometro izango ditu eta 19.000 milioitako

aurrekontua.

Arabako errepide azkarra bi fasetan egingo da, lehena Arlabango portua eta Luko artekoa eta bigarrena Luko eta Etxebarri-Ibiña bitartekoa Forondako aeroportutik oso gertu. Deba Bailara eta Gasteiz elkartuko dituen autobideak asko erreztuko du bi zonaldeen arteko erlazioa, egunero 8.000 kotxe baino gehiago aritzen dira Arlabandik barrena eta autopistak asko arinduko du trafikoa Otxoa de Eribe Arabako Aldundiaren errepideen arduradunaren arabera.

Gorka Etxabe

Martín
RELOJERIA • BIXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK

RKU

Mitarte, 23 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

Izozkitekari-Gozotegia

IZOZKITEGI

Otalora, 11
Tfnoa: 943 79 93 58
ARETXABALETA

San Clemente proiektua bete da

Irailean Nikaraguako CONDEGA eskualdeko familiei laguntzeko proiektu berri bat hasiko da



San Clemente proiektua bukatu bada ere, beste berri bati ekingo dio orain Hiruatxek

Hiruatxek antolatutako San Clemente proiektua hasi eta 16 hilabetetara bertako biztanleekin hartutako konpromezua bete dute. 8.000.000 pezetako parte hartzea bete berri dute.

Dagoeneko aurrera ateratzea lortu duten hiru proiektuekin, Unai, Bukavu eta San Clemente-ekin, milaka pertsonen bizimodua hobetzen ari da.

Hala ere, oraindik egiteko asko dagoela ziurtatu dute. "Hirugarren Munduarekin daukagun konpromezua ez da amaitu. Miserian bizi diren herriak dauden bitartean eta, batez ere, Iparralde aberatsak (guk) herrialde pobreak esplotatzen jarraitzen duen bitartean, ezin ditugu komunitate behartsu hauek ahaztu" adierazi du Hiruatx taldeak.

Proiektu berria irailerako

Dagoeneko proiektu berri bat dauka HIRUATX-ek esku artean. Oraingo honetan, Nikaraguako Condega eskualdean kokatzen diren familia baztertuei zuzenean laguntzea da beraien helburua.

Honetarako, familietako ortu txikiak hobetuko dira, euren janak hobetu eta diru-sarrerak igotzeko. Oilategiak ere osatuko dira, eta etxebizitza behartsuenetan letrinak eraikiko dira. Bestalde, emakumearen formazioan ere egongo da zer eginga, oinarrizko ikastaroak, jostintza eta beste arlo batzuk landuz.

Proiektu berri honen plan zehatza 90 familiari laguntzea da.

Aurrera ateratzea nahi diren lan eta ekipamendu guztien kostua 4.000.000 pezetakoa da.

Kalegarbitzaile enpresa berria

Uztaitetik aurrera "Zerbitzu Elkarte", Urolako kalegarbitzaile enpresa berria, da herriko kaleak garbitzeko Udalak kontratatu duen enpresa. Aurreko enpresari, IZARI, bost urteko kontratua maiatzaren 3an bukatu zitzaion eta Udalak zerbitzuaren kontratazioa osterakaleratu zuen. Horrela eskaintzarik egokiena Zerbitzu elkarteara iruditu zitzaion eta beroni egokitu zion garbiketa zerbitzua beste bost urterako. Enpresa kanpotarra izan arren, Felis Iglesias atxabaltarra, lehen IZAKO langilea zena, da arduraduna eta beste hiru langileak ere atxabaltarrak dira. IZAKO gainontzeko langileek ez dute enpresa berrian jarraitu.

Hemendik aurrera argazkian ageri den makina haundiarekin arituko dira kaleak garbitzen.



Aurten pintura lehiaketarik ez

Aurreko urteetan uztailean pintura libreko lehiaketa antolatu izan da herrian. Aurten, berriz, ez da egingo. Beste arrazoi batzuen artean Udalak atxabaltarren partaidetza txikia aipatu du.

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETAKO

ORTOPEDIA ORTO LAGUN

*Mina izan aurretik, zatoz guregana!
Minari aurrea hartzea da gure apostua*

- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Oinetako eroak


Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 943 77 13 57



Herri birtualak

Orain hiru bat urte inork gutxik eza-gutzen zuen Internet-a. Momentu honetan boom-a eman da, nahiz eta, gizartearen gehiengoak inoiz ez duen erabili eta zer den ere ez dakien. Interneten dagoen Euskadi 10. informazio buletinak (José A. De Moralek digitalki editatutakoa, berrinet@bigfoot.com) iaz Eusko

Jaurilaritzak entitate eta elkarte publikoei internetera sarrera errazteko plan bat martxan jarri zuela dio, baina urtebete beranduago (1998ko apirila) Euskadiko Internet erabiltzaile kopurua Espainiakoaz konparatuz, oso motel doala ikusten da. Internetera sartzeko Plan bat diseinatzea eta Sarean euskal inizatiba sortzea beharrezkoa dela ondorioztatzen du José A. De Moralek. Murtzia eta Extremadura hortan ari dira esaterako.

Nik, bestalde, enpresa pribatu eta jendeari esker Internet-a poliki-poliki gure artean sartzen ari dela uste dut. Banku gehienek kontsultak egin eta transasioak egiteko helbideak dituzte; egunkari garrantzitsuenek edizio elektronikoak dituzte; gero eta enpresa gehiago dira euren produktuak sarean erakusten dituztenak eta Vianako abareak ere (Navarra, <http://personales.mundivia.es/personales/jmgs>) bere sermoiak argitaratzeaz gain, Interneten berarekin batera otoitz egitera gonbidatzen du, eta urrunago joanik, Pittsburg-eko (EEBB) artxi-diocesiak konfesioak egiten ditu

Internetetik. Eusko Jaurilaritzak botu elektronikoa onartu du (www.euskadi.net/elecciones) oraindik jarri barik dagoen arren eta Euskadi bisitatzerako datozenez zerbidore bat martxan jarri du.

Bestalde, Angelo Cacciolak (angelo@elkarkom.com) Komunikazioaren Zabalkunderako Fundazioa eratu du, jendeak Interneta erabili eta era berean "Herri Birtualak" sortu asmoz, Antzuolan eta Bergaran esaterako. Saretxo ere partaide da bertan. Durangoko Udalak herritarrentzat tramitazioak elektronikoki ordenadore bidez egiteko zerbitzua martxan jarri behar du. Bere bultzatzaileak, Cayetano Lupeñak, zera dio: "Euskadiko herri guztiak zerbidore batekin eta elkarren artean loturik imaginatzen al dituzue?"

Nik bai, eta herritarrok bere sorkuntzan parte hartu beharko genukeela uste dut.

Bukatzeko, guzti honen inguruan nik atera dudana ondorioa zera da: Internet-a gure artean hain azkar ez sartzeak gure gizartea "sanoa" dela esan nahi du, non jendea etxetik irten eta erlazionatu egiten den. Nik nahiago dut gizarte mota hau. Hala ere, Internet-ak eskaintzen duen laguntasuna eta erosotasuna kontuan hartuz, etorkizunean gure gizartean ohikoa bihurtuko da honen erabilera eta ez dut uste gaur egungo euskal gizartearen interakzioan eragin txarrik izango duenik.

ALBERTO IZAGIRRE

"Hemen Internet-a hain azkar ez sartzeak, gure gizartea "sanoa" dela esan nahi du, non jendea etxetik irten eta erlazionatu egiten den"

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA

MEMESA S.L.
Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 943 77 11 75
ARETXABALETA

Jon Molina

Diakono ordenazioa egin duen gaztea

Bost urtetan teologia lizentziatura egin ondoren, diakono ordenazioa egin berri du 28 urteko Jonek. Orain beste urtebete itxaron beharko du abare egin aurretik. Bitartean Alegin diakono lanak egin eta bertako parrokoari lagunduko dio, esperientzia eta praktika pixka bat hartuz.

- Abare izan aurretik, derrigorrezkoa da diakono ordenazioa egitea?

- Bai, abare egin aurretik derrigorrez egin behar den pausoa da diakonotza. Badaude diakono batzuk sekula ere abare egingo ez direnak, baina hauek lehenago ezkontuta daudenak dira. Diakonoak ezkontza eta bataioak zuzen ditzake eta eukaristia ospatzen ez den elizkizunetan buru ere egin dezake.

- Noiz erabaki zenuen abare izan nahi zenuela?

- 21 urte nituela, segurantza haundi barik pentsatu nuen eta Donostiako seminarioaz harremanetan jarri nintzen. Oraindik goiz zela pentsatu nuen, baina 23 urte bete nituenean seminarioan hasi nintzen.

- Bokazio kontua da?

- Parrokia inguruan beti ibili naiz eta uste dut hortik sortu zela nigan nahi hori. Beste ikasketa batzuk ikasteko nahia bezala da, berezitasun batzuk badituen arren.

- Zenbat gazte zaudete abade izateko ikasten?

- Gu hamaika gazte egon gara eta datorren urtean beste hiru sartuko dira, beraz, 14 egongo dira datorren ikasturtean. Ez da asko, baina jende gutxiago egon den urteak ere izan dira. Orain tendentzia gero eta helduagoak sartzeko dago, badira 38 urtekin



“Gaur egun elizara joaten direnak benetako fededunak dira eta hori positiboa da”

sartu diren batzuk.

- Elizak krisia jasan du. Zuk zeuk zela ikusten duzu elizaren etorkizuna?

- Guk gazteok gure amei entzun izan diegu lehen elizara zenbat jende joaten zen. Nik beti eliza antzera ezagutu dut. Elizak 2.000 urte ditu eta krisi sakonak ezagutu dira, baina beti aurrera egiten jakin izan du. Hau ere ez da momentu erraza, aldaketa garaia delako. Lehengo lan egiteko modu batzuk ez dute balio eta modu berriak sortu behar dira aurrera egiteko. Elizak nondik nora jo behar duen, bide berriak aztertu behar dira eta

orain momentu ona izan daiteke.

- Momentu ona diozu, zergatik?

- Bai, nik uste dut momentu ona dela. Lehen mundu guztia joaten zen elizara, baina batzuk oso fede gutxikin. Orain joaten dena nahi duelako doa. Fede mailan fededunak benetakoak dira eta hori positiboa da. Orain 15 bat urte, berriz, elizaren kontrako joera gogorragoa zen, orain jendeak pasatu egiten du, ez kontra eta ez alde. Elizara joaten direnak, berriz, nahi dutelako eta fedea dutelako doaz, eta ez derrihortuta.

- Zer ematen dizu bizitza erlijiosoak?

- Galdera zaila erantzuteko.

Nire bizitzan fededun izatea oso onuragarria izan da eta beste batzuentzat ere hala izango dela uste dut. Ni jendeari laguntzeko gertu nago, bai euren fede bizitza bizitzan, behartsuenei laguntzen... Jendearekin kontaktuan egotea asko gustatzen zait eta apaiz Ministeritzak hori oso berezkoa du.

- Nola ikusten duzu abare ezkontuen eta emakume abareen gaia?

- Ni guztiz alde nago. Eliza katolikoak oraindik ez du onartzen, baina denboraz aldatuko da hori. Normala da abare batzuk ez ezkontzea, baina ez dago abareak derrigorrez ezkontu bakoak izan behar dutela esaten duen arrazoi teologikorik. Emakumeekin ere berdin gertatzen da.

- Eta bizitza erlijiosotik kanpo zer egitea gustatzen zaizu?

- Irakurri, gustoko gauzak ikasi, teologia adibidez... Poteatzea ere asko gustatzen zait, jendeaz egoteko eta berba egiteko aukera ona baita.


ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK

**LOGELETAN
maisua**

**Zapatu
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

**Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak
errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.**

Bertako profesionalek zuzendua. BENETAN HARRIGARRIA!

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 943 79 41 82

ARRASATE

Dendari txikien etorkizuna

Etxebizitzak oso garesti dauden bitartean, herriko lokal komertzialak bete ezinik geratzen ari dira saltzen ez direlako. Azken urteotan komertzio txiki asko isten ari da, eta berriak, oster, oso gutxi sortzen dira.

Beste faktore batzuen artean azalera haundiko dendek sortutako kompetentziak eragin nabarmena izan du komertzio txikiaren bizitzan.

Herriari bizitasuna ematen dioten denda hauetako ate batzuk jo ditugu gaurkoan.

Gezurra badirudi ere halaxe da, etxeetako behe solairuak ezin saldu dabiltzan bitartean, etxeek eskari izugarria dute eta hauen prezioek gainera poltsikoak ondo ustutzeko neurria hartu dute. Baina ez da hori zehazki gaurko erreportaia honetan gure harreta sortu duena, herriko komertzio txikien etorkizuna baino. Azkenaldian komertzio asko ixten ari da eta ez da ia berririk sortzen. Herriko bizitza komertziala itzaltzen ete dabil poliki-poliki?

HERRIAREN BIZITASUNA

Iritziak anitzak badira ere, herriko dendari batzuen ahotik jaso dugunari jaramon egiten badiogu, gehientsuenak herriko bizitza komertziala gutxitzen doala esatean bat datoz. “Komertzio txikiak behera egin du, eta honek jakina, denda guztietan eragina du”, dio Miren Gastañaga Miren dendako jabeak. Horrela, Mirenen ustez, herri batek herritarren eskariak asetzeko beste eskaintza badu, hauek nekezago joango dira inguruko herrietara eta gehiago



Miren Elorza

“Auzoko bezeroei esker mantentzen gara”

Miren Elorza 20 urte egin aurretik hasi zen bere izen bera duen dendan lanean. Egun ia jubilatze kotan da, beraz, bizi guztia eman du dendari lanetan eta bertan hamaika bitxikeria pasatakoa ere bada. Fideo paketeak 3 pta. balio zueneko garaia gogoan du, “lehen bezero gehiago izan arren, produktu bakoitzari igo behar zitzaion kantitatea oso txikia zen, txakur txiki bat askotan, eta jendeak diru gutxiago zuen orduan”.

Azalera haundiko dendak sortu direnetik kon-

petentzia haundia igarri du, hala ere, “auzoko bezeroei esker mantentzen gara eta bezero asko hil ere egin dira dagoeneko”, azaltzen du Mirenek. “Bizi guztia hemen egin ondoren, konformitatea hartzen da”.

Bukatzeko, horrenbeste urte dendan lanean aritu ondoren “ez al dugu meritoa dendariok?” aldarrikatzen du Mirenek. “Urrezko domina eman beharko ligukete”. Arrazoirik ez zaio falta, ez horixe.

kontsumituko dute herrian bertan.

Era berean herri batek duen bizitasuna, neurri handi batean behintzat komertzioei zor zaiela uste du Tirso Martinez Errekabarren fruitategikoak. "Jendea mugitu eta erakartzen dute dendek, herriari bizitasuna emanez". Hori egia da, imaginatu bestela denda bako Aretxabaleta bat. Herria komertzioen argi barik oso triste geratuko litzateke.

GASTU HAUNDIA, LAGUNTASUNIK EZ

Dendari batzuek, horien artean ázalera erraldoien eragin zuzena nabaritu dutenek, elikagaien bereziki, etorkizun beltza ikusten diote komertzio txikiari. Horrela euren komertzioan salmenta nola gutxitu den ikusi dute, eta hau gutxi

“Agintariek komertzio txikiek ematen duten aberastasuna ondo baloratu beharko lukete”

balitz, honi dendako gastu guztiak gehitu behar zaizkio, argia, telefonoa, autonomoetan kotizatzea, kontribuzioa... eta lokala errentan eduki ezkeronek beste aparteko gastu bat suposatzen du. "Gainera eskean ere guregana etortzen dira", gehitzen du beste dendari batek.

Egoera honen aurrean dendari batzuk laguntasun falta aldarrikatzen dute. "Inork ez du errua, jendeak ez du komertzioak desagertzetik nahi, baina gobernua ez baditu neurriak hartzen komertzio txikiak itxiaz joango dira. Agintariek komertzio txikiek ematen duten aberastasuna ondo baloratu beharko lukete".

IRTENBIDEA: DENDA ESPEZIALIZATUAK

Aurrekoa irakurrita badirudi etorkizun beltza dutela komertzioek, baina garbi dago hori negozioaren arabera dela. Ikuspegi positiboagoa duten dendariak ere badira, nahiz eta, "komertzioarena sekula ez den ziurra", gehitzen du Tirsok. "Gaur negozioa ondo joan arren, biharko egunean zer gerta-



Tirso Martinez

“Kalitateari ematen diot lehentasuna”

Harrera beroa egin digu Tirsok bere fruitategian, eta galdera batzuk gustora herantzungo dizkigula esan digu gainera. 14 urte badira Tirsok Errekabarrenen fruitategia zabaldu zuela. Produktu batean espezializatzea pentsatu zuen, "gaur egun ezin da eta negozio konplikatueta sartu", dio. Beste dendari batzuen aldean Tirsok ikuspegi positiboagoa azaldu digu, nahiz eta, "horrelako negozio batean sekula ez jakin zer gertatuko den". Hala ere, beste dendariekin bat

dator herriko komertzio minoristen indar gutxitzea aipatzen. "Denda batzuk itxi egin dira, eta gaur egun denda bat ipintzea oso konplikatu da, jakina, negozioaren arabera dago hori".

Denda haundien kompetentzia ez du horrenbeste nabari, agian denda espezializatu delako berea, baina astelehenetan merkatua dagoenean igarten dela esaten du. Dena dela, berak kalitateari ematen dio lehentasuna, ahal bada bi prezioetako produktuak edukitzen saiatzen den arren.



Miren Gastañaga

**“Azalera
haundiko denden
eragina hauek
zabaldu eta lehen
asteetan igartzen
da gehienbat”**

Miren Gastañagak, Miren ehunak dendako jabeak, orain urte eta erdi zabaldu zuen erropa denda Otalora kalean. Betidanik izan du denda batean lan egiteko ilusioa eta hau bere ametsetako denda ez den arren, gustora dago.

Mirenen ustez superfizie haundien eragina hauek zabaldu ondorengo lehen asteetan igartzen da gehienbat. “Ondoren egoera normalduz joaten da, hala ere, konpetentzia haundia dagoenez, erropa desberdina ekartzen saiatzen naiz”.

Bere ustez denda txikiek badute abantailarik

haundien aurrean, alde batetik herrian bertan daude eta jendeak erropak eta bestelako produktuak etxera eramanez ditzake probatzeko, baita aldatu ere.

Herriko bizitza komertzialak, bestalde, behera egin du bere iritiz, eta honek “beste denda guztietan ere eragina du, jakina. Inguruan zenbat eta denda gehiago izan hobe da, konpetentzi berekoak ez direnean behintzat, batak besteari laguntzen diotelako, inguru horretan jendea mugitzen delako eta jendea herrian erostera ohitzen da, kanpora irten beharrean”.

tuko den ezin da jakin”. Adituek diotenez, gaur egun dendariantzat etorkizunik onena denda espezializatua da. Tirsok esaterako fruta denda jarri zuen orain 14 urte. Denda espezializatua izatean, ez du horrenbeste igarri denda haundien eragina, baina bai astelehenetako merkatuarena. Lehentasuna kalitateari ematen dio, eta bere iritiz bezeroenganako tratua ere oso garrantzitsua da denda txikietan. “Bezeroak antzekoak dira, herrikoak, beraiei esker mantentzen gara”.

ESFORTZU IZUGARRIA

Kanpotik begiratuta dendarien lanak ez du konplikazio haundikoa ematen, baina hau zer den jakiteko barrutik bizi beharra dagoela garbi du Miren Gastañagak. “Ematen duena baino lan gehiago suposatzen

du denda baten antolakuntzak eta komertziantze txikiok egiten ari garen esfortzua haundia da”.

Miren Elorzari gutxi gelditzen zaio jubilatzeke eta ia bizi guztia, 48 urtetik gora, bere izena daraman dendan lanean eman du. Urte luze hauetan bitxikeria asko bizitakoa da Miren, bezero batzuekin konfi-

dantza haundia ere hartu du. “Gure tratua oso zuzena da bezeroekin eta zorrak apuntatzeko koadernotxoa ere beti egon da... beste konfidantza bat ematen da”

Denda haundien konpetentzia gertutik bizi du, “baina azkenerako bizi guztia hemen egin ondoren, konformidadea hartzen da. Denda txikiok esfortzu haundi eta ordu asko sartuta jarraitzen dugu bizirik”. Hala ere, dendako jornaletik bakarrik familia bat mantentzea ia ezinezkoa dela gehitzen du.

Dendarien bizitza gertuagotik bizi izan dugun honetan, horrenbeste lan eta ordu sartzen dituzten dendariak ez al dute omenaldi bero bat merezi? Bizitza guztia dendan eman duten horiek, gaur egun komertzioa aurrera ateratzeko jo ta ke lanean ari direnek... Bai horixe, mereziko ez dute ba!

**“Gaur egun denda
espezializatuek ei
dute etorkizunik
onena”**




Andoni Zubizarretak futbolari agur esan dio

Ekainaren 24an, San Juan egunez, Andoni Zubizarretak futbola utziko zuenaren berri eman zuen.

17 denboraldi primeran profesional bezala jokatu eta 126 aldiz internazionala izan ondoren, Zubizarretak Frantziako mundialean jokatu du bere azken partidua.

Andonik adierazi zuen bezala "heldu da eguna, gainera egun hau nik aukeratu ahal izan dut zortez. Agur lesio, nerbio eta bielekuei..."

Gainera, harro zegoela ere jakinerazi zuen, askotan, futbolak ez du norberak jubilatzea nahi duenean jubilatzeke aukerarik



Andoni Zubizarreta

ematen eta, are gutxiago 36 urtekin.

Aretxabaletako mutil honek, guztiei eskerronak emateko aukera ere izan zuen ekainaren 24an. Berezi, bere emaztea, Ane, eta Klemente entrenatzailea aipatu zituen.

Beraz, lorpen ugariarekin utziko gaitu Zubik. Zorionak!

Azken aldian egindako lana dela eta, Andonik deskantsu bat hartzeko une egokia zela erabaki zuen. Horrela ba, ekainaren 29an maletak prestatu eta oportretan joan zen. Handik bueltan, Bartzelonara itzuliko da. Aurrerantzean bertan bititza erabaki dute eta.

Ez dira jarduera guztiak burutuko



Hasita daude udako kirol jarduerak

Dagoeneko hasi dira uztail honetako kirol jarduerak. Hasiera batean hamahiru kirol ezberdin antolatu ziren, baina izen emate eskaxa egon dela eta, eskalada, espeleologia, naturako jarduerak, mendiko bizikleta eta orientazio lasterketa ezingo dira aurrera atera.

Badmintona, tenisa, mahai tenisa, pilota, igeriketa, aerobika eta piraguismoa, uztaila osoan zehar praktikatu ahal izango dira. Aipatzekoa da azken honetan ez dela atxabaltarrak apuntatu.

Golfaren kasuan, berriz, bigarren hamabostaldian soilik izango dira jarduerak, Ibarrako futbol zelaian emango direnak.

Guztira 80 pertsona inguru dira udako kirol hauetako partehartzaileak.

Palako finalean atxabaltarrak ez

Pasa den uztailaren 5ean pala txapelketako finala jokatu gabe gelditu zen. Beraz, partidu hau bihar, eguakotxa, arratsaldeko zazpitan jokatu da.

Semifinalean, Sarasua anaiek Garitaonandia anaieen aurka jokatu zuten, 33-35eko emaitzaz, arrasatearrak garaile izanik.

I. Irureta eta M. Alberdik osatutako bikote bergararra, berriz, R. Agirre eta M. Uribetxeberriarekin lehiatu zen. Honetan ere, 20-35 emaitzarekin kanpotarrak nagusitu ziren.

Honela ba, finalean ez da atxabaltarrak izango. Arrasateko Garitaonandia anaiek, Bergarako Irureta-Alberdi bikotearen aurka jokatu dute.

“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"

Tfnoa: 943 79 62 80

ARETXABALETA



Esko Sport

**Kirola eta Sport
moda Leintz
Bailaran**

Intxaurtxueta, 5

☎ 943 71 52 96 ESKOBIATZA

Larunbat arratsaldetan
zabalik

Mikel Bengoa

“Oier Etxebarriak eta biok bost urtetan eskaladako bekak lortu ditugu”

Orain dela zortzi urte hasi zen Mikel eskalada praktikatzen. Lagun talde batekin egin zituen bere lehenengo urratsak. Frogatu, gustatu eta egun horretan dihardu.

Eskaladaz aparte, mendian ibiltzea, takarraran egitea eta bizikletan ibiltzea ere asko gustatzen zaio. Kirol hauekin asko disfrutatzen duela ere esan digu Mikelek.

• Mikel, inguru honetan non eskalatzen duzu?

Araotz eta Atxarte dira geru egoteaz aparte, oso ondo dauden lekuak. Urrunago joanez gero, Eguino ere aipa daiteke.

• Euskal Herritik kanpo ibilia zara?

Bai. Madrilen, Katalunian, Alpeetan, Pirineoetan, Hueskan eta beste hainbat lekutan eskalatu izan dut. Baina leku hauetara joateko, asteburuak eta jai egunak aprobetxatu behar dira, urrun gelditzen dira eta.


• Haitzetan bakarrik eskalatzen duzu?

Ez, azken aldiak izotzeko eskaladan ere aritu naiz. Orain arte ez dugu honetarako aukerarik izan, beraz, orain aprobetxatu beharko dugu. Inguru honetan oso zaila da izotz egokia aurkitzea, horregatik Pirineoetara eta Alpeetara mugitzen gara.

Haitzetako eskalada praktikatzeke, berriz, erraztasun haundiak ditugu, aurrez esan bezala, inguru honetan leku ederrak dauzkagu eta.

• Zein eskalada mota nahiago duzu?

Baliteke izotzezkoa egiteko gogo gehiago izatea, urtean hiru edo lau asteburutan bakarrik praktikatzen dudalako. Egia da ere, izo-



“1.300 metroko Espolón Walker-a eskalatzea gustatuko litzaidake”

tzetan aritzeko indar gehiago behar dela, baita teknika landuagoa ere. Izotzetan nekatu gabe eskalatzen ikastea oso garrantzitsua da.

• Fisikoki nola prestatzen zara?

Fondoa lantzeari garrantzi handia ematen diot. Kontuan edukitzekoa da biga luzeak egiteko, indarrak gain erresistentzia ere beharrezkoa dela. Aurreko urtean adibidez, 14 ordu aritu ginen 900 metro-tako biga bat egiteko. Egia esan, eguraldiarekin ez genuen batere zorte onik izan.

Gainera, orduantxe konturatu

nintzen, prestaketa fisikoa bezain garrantzitsua dela psikologikoa.

• Beka baten berri ere entzun dugu.

Orain dela 6 urte, Gipuzkoako Federazioan 16-25 urte bitarteko gazteei zuzendutako eskaladako bekak atera zituzten. Honekin, beraien helburua kirol hau indartzea zen.

Oier Etxebarriak eta biok eskaladako gure curriculumak bidali genituen; ordurarte eskalatutakoa eta urteko aktibitate guztien memoria bidaliz. Horrela, bost urtetan zehar 100.000 pezetako bekak eskuratzea lortu dugu.

Ordurarte trenez eta auto stop eginez joaten ginen eskalatzera, beraz, ondo zetorkigun diru hori.

Beste behin, Euskadiko Federazioak antolatutako izotzezko ikastaro bat ere eskuratu nuen. Euskal Herritik Oierrek eta nik geneukan aukera hau, baina plaza bakarra zegoenez niri tokatu zitzaidan.

• Inguru honetan afiziorik badago?

Egia esan, ez asko. Egun aritzen diren gazteak, gainera, rokodrometan ibiltzen dira. Jendeak eskalada deportiboa praktikatzen du gehienbat. Pareta motzak izan arren, zailtasunak aurkitzen saiatzen dira. Nik nahiago dut eskalada alpinoa egitea; bigak errazagoak izan arren interesgarriagoak iruditzen zaizkit. Txapelketak ez zaizkit interesatzen.

• Zer eskalatzea gustatuko litzazuke etorkizunean?

Espolón Walker, Alpeetako Jurassis mendian kokatzen den 1.300 metroko bidea. Baina oraingoz behintzat, oso gaxt ikusten dut, oso biga zaila da eta.

Azkenean bai, Portasolgo jaiak antolatuko dira

Herriko 25 bat gazte jaiak antolatzeko prest azaldu dira. Auzotarren laguntza eskatzen dute. DJ Dance dantzaldia izango da ostiralean

Jaiak ondo antolatu ahal izateko nahiko berandu bada ere, herriko gazte talde bat Portasolgo jaiak antolatzeko ilusioz eta gogoz azaldu da eta beraiei esker aurten San Lorentzo jaiak ospatu ahal izango dira.

PAGLEko antolatzailer beterranoek gazteagoei lekua utzi die, eta aurrerantzean beraiek izango dira taldekide berriak. Herriko 25 bat neska-mutiko dira, 15-19 urte bitartekoak egitaraua moldatzen buru belarri dabilzanak. Beteranoen laguntza duten arren, esperientzia falta eta denbora falta dela eta, "ekintza gutxi baina onak antolatzen saiatuko gara", taldekide batek esan bezalaxe.



Argazkiko gazteek ilusioz hartu dute jaien antolakuntza

Sokamuturraren ordeztaranga

Sokamuturra antolatzeak eskatzen duen tramitazio guztia egiteko denborarik eman ez duelako, aurten txaranga izango da zezenaren ordeztaranga kaleak animatuko dituena. "Ostiralean jende gaztearentzat DJ dance dantzaldia antolatu da Eguzki alde plazoletan goizaldeko 3ak arte. Zapatuan nagusiagoentzat berbena

tropikala izango da Araba Ibilbidea kalean. Egunean zehar, bestalde, umeentzako jokuak eta bestelako animaziorik ez da faltako.

Auzotarren laguntasuna

Jaiak antolatu ahal izateko bi talde sortu dira: publizitatearena eta programazioarena. Publizitate arloan momentuz jendeak ondo erantzun duela diote, izan ere, herritarren kolaborazioa behar

beharrezkoa dute jaiak burutu ahal izateko.

Udaletxeak berak ere konfidantza jarri du gazte taldearengan, gazteak izan arren, motibazioa eta ilusioa ez zaie falta eta. Ugutz Usandizaga, antolatzaileratariko batek adierazi bezala, "aurten jaiak makal samarrak irteten badira ere, hurrengo urteetarako hobeak antolatuko ditugu". Gogoia eta ilusioa ez zaie falta behintzat.

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

Okindegia - Gozolegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Maritxu
Mertzzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76



Larrinuko San Kristobaletan

Bihar San Kristobal, Larrinuko zaindariaren eguna dela eta, egun horretako argazkia ekarri dugu gaurkoan orrialde honetara. Auzoko jaiak zirela eta, 50. hamarkadan argazkiko emakumeak eta gizonezkoa Larrinuko elizondoan fotografoaren esanetara jarri ziren.

Gaur egun erromeriak krisian badaude ere, argazkikoek ondo gogoan izango duten moduan, orduan izaten zen festa girorik auzoetan. Larrinukoak ere ez ziren atzera gelditzen. Gainontzeko auzoetan letxe San Kristobalak bi egunez ospatzen ziren: San Kristobal uztailaren 10ean eta hurrengo eguna animen edo Larrinuko hildakoen izenean. San Kristobal egunez meza aurretik gonbidatuak salda hartzera etortzen ziren baserrietara. (Goiko argazkian ere baditugu gonbidatu batzuk). Ondoren meza nagusia luzea izaten zen, eliza bera ere inoiz baino dotoreago jaxten zen ospakizun hauetarako. Meza ostean soinujoleak alaitzen zuen festa eliza ondoan eta arratsaldez Teileixe baserrian jarraitzen zuen erromeriak.

Larrinuko jaiak orain 15-20 urte arte jai giro bikaina ezagutu dute. Azken urteetan jendea erruz gerturatzen zen Larrinura. Sokatira, taberna eta erromeria bikaina izaten zen bertan.

Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Juan Etxeberria, Juli Idigoras, Maria Josefa Uribetxebarria, Teresa Iarza (atzean), Ines Iarza, Mari Bengoa (aurrean), Karmele Unzueta, Mari Angela Etxebarria, Jesusa Iarza, Maria Luisa Larrañaga, Mari Tere Okina.**



Zenbaki

Basabe
Industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoak: 943 71 21 12
943 71 22 68

Aholkularitza

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61

Pelikularik hoberenak

DON
BIDEO

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

LANA

◆ **Sukaldaria** behar da. Espe-rirentziaduna. Deitu arratsalde 943 79 00 60 telefonora.

◆ Arrasateko gimnasio batek **fisioterapeuta** bat behar du. Interesatuak bidal dezatela euren curriculum vitae-a ondoko helbidera datorren uztailaren 17a baino lehen: Pardo Estetika-zentrua (Tfnoa: 943 79 52 17)/Iparragirre plaza, 4 behe/20500 Arrasate.

◆ **Emakume** bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 77 13 (arratsaldeko 8etatik aurrera deitu).

◆ Klase partikularrak emango nituzke udan, matematikak, fisika eta kimika. Telefonoa: 943 79 51 19 (Ane).

◆ Langaiko lan eskaintza

Bi matrizista. Deba Garaia. Ref: 9383/3

Kalibratze prestatzaileak. Deba Garaia. Ref: 9385/2.

Tornularia. Deba Garaia. Ref: 10082/3.

Fresadorea. Deba Garaia. Ref: 10245/3.

Harreragilea (elbarritua). Gasteiz. Ref: 8002/3.

Lau soldadore. Gasteiz. Ref: 10466/2.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.

Hiru igeltsero. Gasteiz. Ref: 10396/3.

Lau galdaragin. Gasteiz. Ref: 10364/2.

Sukaldaria. Bilbo. Ref: 9342/3.

Bi enkofratzaile. Donostia. Ref: 1039/1

Informatikaria. Bilbo. Ref: 10308/1.

DENETARIK

◆ Bi lagun behar dira Donostiako Amara auzoan pisu bat osatzeko. Pisua egoera onean dago. Harremanetarako deitu: 943 79 27 42/943 79 53 58.

◆ Denda bateko modulu metalikoak (estante edo apalak) salgai daude prezio onean. Tfnoa: 943 79 77 30.

◆ Irrati programa baterako munduan zehar ibili den jendearekin kontaktuan jarri nahi dugu. Deitu Arrasate irratiko telefono hauetara: 943 79 58 40 (erantzungailua)/943 79 58 77.

ETXEBIZITZA

◆ Laredon hondartza ondoan dagoen apartamentua alokatzen dut. Tfnoa: 943 79 52 80.

◆ Lokal komertzialak salgai Aretxabaletan. Azalera desberdinetakoak (50 m²-tik 200 m²-tara) Toki egokian eta prezio onean. Tfnoa: 943 77 16 41-79 96 72.

LEHIAKETAK

◆ **Andramaixak iragarriko dituen kartel lehiaketa** antolatu du Aretxabaletako Udal kultura sailak. Lanak uztailaren 10a baino lehenago aurkeztu behar dira kultur etxean.

◆ **Argazki lehiaketa Arrasaten.** Gazteria eta Emakume sailek, ASA argazki taldearekin batera, IX. argazki lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa zuri-beltzean eta koloretan egingo da. Epea: urriak 9. Informazioa gazte bulegoa (943 77 00 65).

◆ **Laudioko ilustrazio txapelketa.** Aurtengo ipuin sarituen osagai izango diren ilustrazioen lehiaketa antolatu du Laudioko Udalak. Hamar lamina eta portada bat aurkeztu beharko dira urriaren 16a azken eguna izanik. 75.000 pezetako saria egingo da lehenengoren-



Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 943 77 17 06

Aralar z/g
Tfnoa: 943 77 17 04

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

Gora San Fermin



Aurten ere heldu dira San Ferminak, idazle amerikar baten influentzia dela medio jairik ezagunenetakoak bihurtu dira. Denontzat dugu lekua bertan, zezenzaleentzat, mozkorzaleentzat, eta baita iturrietatik salto egitea gogoko dutenentzat ere. Leku guztietara iristen da hauen oihartzuna, baita gure herrira ere. **San Fermin egunez udaleku irekietako** gazteentzat entzierroa prestatu zuten eta **Josu Harategian** Iruñakoak balira bezala apaindu ziren, lepo zapi eta guzti.

Uztailean jaiak ugari izaten dira baina honetaz aparte eta normalean eguraldiak ere gehiago laguntzen duenez, kiroletarako ere sasoi aproposa da. Hori dela eta, kiroletxeak kirol jarduerak antolatuta dituzte hilabete honetarako. Besteak beste kirol jarduera hauetan monitore lanetan ibiliko diren

atxalbaltarrak honako hauek dira: **Iñaki Galdosek** golf ikastaroa emango du; **Jose Luis Erañak** tenisa; **Jose San Migelek** pelota eta **Pedro Balenziagak** igerian trebatuko ditu kirol hau egitera animatzen direnak. Beraz, nahi duenak hemen dauka aukera kirola praktikatzeko. Hala ere, futbol barik bizi ezin zaretenok, Arlutzeko futbol txapelketa hor daukazue. Ikusle kopuruagatik Frantziakoak hainako arrakasta duela esango nuke.

Kirola alde batera utzita **Jon Molina** dagoeneko diakono egin dela esan behar da, beraz, hemendik urte batera gutxigorabehera abare bat izango dugu Atxalbaltan.


Kontu hauekin jarraituz **Sebastian Uribetxebarria** Kolonbian dagoen marianista gure artean dugu egun hauetan. Ondo aprobetxatzen ei dabil hemen dagoen denbora.

Laster Andramaixak eta gero San Migelak etorriko direlako, kultur laguntzaile berria dugu herrian: **Amaia Berezibar**. Ea ba denon artean jai txukunak prestatzen ditugun.

Gure herrian ondo prestatuta irtengo dutenak herriko umeak dira. Aurreko batean **Pausokako umeak** Debara eta Lastur aldera bidaiari irten zuten, Eibarren trena hartu ondoren. Aguro hasi dira hauek.

Eta zuentzako astebukaeran bidaiaren bat egin gura izan ezker, hor dituzue San Ferminak!

Liburutegiko txokoa



Jon Etxaide edo euskal nobela historikoa

Pasa den ekainaren 22an hil zen Jon Etxaide Itharte euskal idazlea 78 urte zituelarik. Donostian jaio zen eta ofizioz delineantea izan bazen ere literatura zuen bere afizioa eta hamaika lan argitaratu izan ditu 50. hamarkadan hasi zenetik. Besteak beste antzerkia, nobela, ipuin laburrak, biografiak eta itzulpenak landu izan ditu, eta askotan euskal historia edo euskal pertsonaia historikoak oinarri bezala hartuz. Euskal nobela historikoa landu zuen

bakarretakoa izan dela esan daiteke.

Bereziki aipagarriak dira “Gorrotza lege” ertaroko leinu arteko borroka giroan kokatzen duena, Arrasateko erreketara barne; baina maitasun istorio bat ere kontatzen duena, eta “Joanak joan” Piarres Topet Etxahun Zuberoako koplariaren bizitza trajikoaren berri ematen duena. Bere azken nobela “Eneko Agerroa” 1981ean argitaratu zen lehen aldiz.

Bere ipuin eta bestelako lanak bilduaz “Purra! Purra!” liburu kaleratu zuen, bere luzeragatik Erein argitaletxeak 6 aletan argitaratu zuena, gazteentzat auskalo sailean. Antzerkiari dagokionez, “Begiak begi truk”, “Markes baten alaba” eta “Amayur” lanak ere utzi dizkigu, beti ere euskal historia oinarrian dutenak. Bere aitaren biografia ere idatzia du “Etxaide jauna” izenburua daramana eta itzulpenak ere egin izan ditu. Liburu gehiago ere baditu, baina hauek dira Udal Liburutegian aurkituko dituzuenak.

Etxaidek denbora asko eman zuen bere lanak hobetu nahian, argitalraldi berrietan akatsak zuzendu eta oharrak eta pasadizuk gehituaz; bere nobelak hala ere erraz eta gustora irakurtzen dira eta gaur egun ere Nobela historikoa modan dagoen honetan genero hau gustoko duenak hor du Etxaideren lan paregabea.

Joseba Lopez de Armentia

UZTAILA

10

egukotxa

UDAKO OHIKO BATZAR OROKORRA

UDAK ohiko batzar orokorra egingo du datorren uztailaren 10ean udaletxeko areto nagusian arratsaldeko 8etan hasita. Honako gai zerrenda iragarri da: 97-98 ekitaldiko kirol eta ekonomia gorabeherak, 98-99 ekitaldirako zuzendaritza batzordea eta 98-99 ekitaldiaren aurkezpena.

SAN KRISTOBALAK LARRINON

Meza izango da arratsaldeko 8etan eta domekan eguerdiko 12etan.

PALA TXAPELKETAKO FINALA

Arratsaldeko 7etan pala txapelketako finala egongo da kiroletxean. Arrasateko Garitaonandia anaiak Bergarako Irureta-Alberdi bikotearen aurka jokatu dute.

S.T. Datorren ikasturtea

Alemana, frantsesa, ingelesa, umeentzako euskara

Matrikula: uztailaren 1etik 17ra

Informazioa: 943 79 00 69

Bulego orduak: 9 am - 12 pm
3 pm - 6 pm

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9

Tfnoa: 943 79 19 79



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83 ARETXABALETA

IBARRA ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA

Andramaixetako egitaraua iragarriko duen kartela aurkezteko azken eguna uztailaren 10a da. Saria: 35.000 pta.

12

domeka

MENDI IRTEERA

Murrukixo M.E.ak Balerdira irteera egingo du. Irteera ordua goizeko 8etan partenoitik.

XVIII. BIZIKLETA MARTXA

“Zain ditzagun gure ibaiak” lemapean EKIk bizikleta martxa antolatu du uztailaren 12rako. Irteera Debara izango da eta ordu 1ean manifestaldia egingo da alamedaraino. Ondoren trikitilariak eta dantzariak izango dira.

1-14

INSTITUTOKO MATRIKULA EPEA

Gogoratu Arrasate-Aretxabaleta institutoan matrikulatzeko epea uztailaren 14an itxiko dela.

16

eguna

ARRASATEN ZINEA

Arrasateko Monterron parkean **Trainspotting** pelikula ikusteko aukera izango da. Gaueko 10,30etan Monterron parkean.

18

zapatua

JUGOSLAVIAKO ORKESTRAREN BISITA

“Drustvo Prijateija Muzike” Kanjiza herriko orkestrak kontzertua eskainiko du herriko parrokian arratsaldeko 8,30etan.

Auzoetako mezak:

Uztaila (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.

- Azatlan 12etan.

- Arkarazon ordu 1ean.

Oharra: Ordutegi honek aldaketak izan ditzake auzoetako jaiak direla eta.

17, 18, 19

PORTASOLGO JAIK

Portasol aldea girotuko duten ekintzarik ez da faltako 17, 18 eta 19 astebukaeran.

Jaiei txupinazoaz hasiera eman ondoren, eguakotxean

buruhaundi, txistulari eta

trikitilariak izango dira

arratsaldean eta gauean, berriz,

DJ Dance dantzaldia Eguzki

alde plazoletan goizaldeko 3ak arte.


Zapatuan sokamuturraren orde

txarangak alaituko ditu kaleak.

Honez gain, **mus txapelketa, haurrentzako jokuak eta txokolada** antolatu dira eta gauerako **dantzaldia** izango da Araba Ibilbidea kalean.

Domekan goizeko dianaren ondoren, **meza** izango da San Lorentzoren ohorez goizeko 11etan. Jarraian **haurrentzako marrazki lehiaketak** eta arratsaldean gazte-txoentzako **xake txapelketak** izango dute lekua.

Beraz, hiru egunetako festa giroak Portasol aldera kukutxo bat egiteko aukera eskaintzen du.

Portasolgo jaiak

Portasolgo jaietan aurten ez da sokamuturrrik egongo, honen orde txarangak alaituko ditu kaleak

POSTAL LEHIAKETA

Uda honetan ere postal lehiaketa egingo dugu. Beraz, zauden lekuan zaudela idatziezaguzu postaltxo bat. Postal guztien artean zozketa egingo da eta garaile ateratzen denak bi lagunentzat afari eder bat irabaziko du Burgales jatetxean. Sari honen irabazlea irailaren 17ko alean aterako da. Postala Aretxagazeta 151 postakutxatilara 20550 Aretxabaleta helbidera bidali behar da.

Burgales jatetxea

Platerrik goxoena giro atseginean

Durana, 12 ☎ 943 79 20 63

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	088
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Azken hiru urteetan bezalaxe, aurten ere udalekuetako begiralea izango da Eider. Haurrak gogoko izateaz gain, eskulanak egin eta saltza eta merengea dantzatzea ere asko gustatzen zaio.

• Nolatan udalekuetako begirale?

Lau urtez Ortzadarreko begirale izan ondoren, udalekuetan ere parte hartzea aproposa iruditu zitzaidan. Gainera, haurrak asko gustatzen zaizkit.

• Udaleku irekiak ala itxiak nahiago?

Udaleku itxietan gau eta egun elkarrekin egoten denez, sortzen den erlazioa sakonagoa dela iruditzen

“Barneko umea ateratzen jakitea oso garrantzitsua da begirale ona izateko”

zait. Irekietan, berriz, bost ordu egin eta gero norberaren gauzak egiteko aukera dago.

• Zenbat urteko haurrekin arituko zara udalekuetan?

3 urtekoekin, lehenengo haur eskolan dabilzanekin. Adin honetako 30 haur daude, tutore bakoitzak 10 inguru izango ditugu.

• Haur bezala, udaleku edo atsedean taldean ibilia zara?

Bai. Ia begirale izan arte gainera.

• Gogoratzen duzun ekintza edo irteerarik?

Landara eginiko irteerak. Oso ondo pasatzen nuen.

• Begirale on baten ezaugarriak?

Zabala eta motibatzailea izan behar da. Lan egiteko gogoia edukitzeaz gain, barneko umea ateratzen ere jakitea nahi ta nahiezkoa da. Norbere eta talde osoko eginbehar eta helburuak garbi izan behar dira.

• Gaia aldatuz, mutilak belarritakoaz ala barrik?

Belarritakoaz

• Hobbirik?

Eskulanak. Denbora gehiago izan ezkeru igeriketara ere gustatzen zait.

• Zein motako eskulanak?

Pultserak eta koilarrak egiten ditut, baita larrua landu eta makramea ere.

• Dantza mota bat?

Saltsa eta merengea. Dagoeneko ikastaro batzuk egin ditut, eta oraindik jarraitzeko gogoia daukat.

• Dantza hauek ikasi ta gero praktikatzeko aukerarik badago?

Egia esan, Aretxabaletan ez. Baina Gazteizen, Durangon eta Bilbon adibidez, aukera majoa egoten da.

• Inguruko jairik onenak?

Lekeitioko antzar eguna.

• Eguzkitan babesik hartzen duzu?

Bai noski. 10ekoa gainera!

• Agujetak kentzeko erremedioren bat?

Berriz ere ekintza berbera egitea.

• Zer da beti egin behar duzula esan eta inoiz egiten ez duzuna?

Ja,ja,ja. Erregimena!

• Bifxiak, urre edo zilarrezkoak?

Nire esku eta belarriak begiratzea besterik ez duzu. Guztia zilarra da!

• Aurrerantzean erosketak Internet bidez egitearen aldekoa zara?

Ezta pentsatu ere! naizen berri-tsuaekin... Gainera oso erlazio hotza izango litzateke.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



ONDO PASAU PORTASOLGO JAIETAN

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

◆ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA

☎ 943 79 68 57

Zaraia taberna

MANTEKA
ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA

☎ 943 79 94 15

Josu harategia

- Urdaitegia-Gozotegia
- kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA

Tfnoa: 943 77 03 08

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Express akeitegia

**Express
akeitegia**

zure gustoko giroa

Santa Kurtz, 16

☎ 943 79 23 43

Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro one-
nean

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA

☎ 943 79 20 67

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ◆ Tfnoa: 943 79 20 89

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA

Tfnoa: 943 79 85 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



◆ Bazkari
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29

Aretxabaleta

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa ARET-
XABALETA

Tfnoa: 943 79 17 51



Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Aldibi



**Aldibi,
etorkizunari
aturrea
hartuz.**

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurrira
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairuen enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilarri eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S. L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.